

**2012KO AZAROAREN 22AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bia.

HILABETEA: Azaroa.

URTEA: Bi mila eta hamabi.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK:

- Aitor Larburu Izaguirre
- M^a Mar Celaya Gonzalez
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Iñaki Saldaña Herrero
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M^a Luisa Valles Fernandez
- Leire Artola Ugalde
- Iñigo Arrese Artabe
- Encarna Arrieta Telleria
- Eva Diaz del Rio
- Alfonso Segade Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

OHARRA: ARALARko ordezkaria falta da ezinezkoa izan delako zinegotzi karguaren jabetza hartzea, oraindik Hauteskunde Batzorde Zentralik kredentziala iritsi ez delako.

1.- AURREKO AKTA. 2012ko urriaren 11ko aktaren onespena.

Ezagutzera eman ondoren, 2012ko urriaren 11ko akta, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- XEHETASUN AZTERLANAK:

- CAF, 6. areako Xehetasun Azterlanari behin betiko onespena ematea.

Alkate jaunak Hirigintza Batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Beasaingo CAF, 6. Areako P.1.1 (P1 lursaila) azpilursailaren Xehetasun Azterlanari behin betiko onespena ematea.

I.- 2012ko ekainaren 11ko datarekin, Alkateak ebatzi zuen CAF, 6. Areako Xehetasun Azterlanari hasierako onespena ematea baldintzekin.

Xehetasun hauek jasotzen dituen testu bisatua, aurkeztea:

“4. puntuan. 1 lursaila eta 1.1. azpilursailaren deskribapena. Errepartzelazio Proiektuan aurreikusten diren azalera eta eraikigarritsunak kontutan izan behar dira eta ez Hiri Antolamendu Egitasmo Bereziarenak, Errepartzelazio Proiektua delako Jabetza Erregistroan inskribatuta dagoena.”

Ondorioztatzen diren lursail berrien, 2 zenbakiko plano, errepartzelazioko ondorioztatutako lursailen planoarekin bat etorri behar da.”

II.- Espedientea jendaurrean jarri zen, 2012ko ekainaren 8, 12 eta 11ko Berrian, Diario Vascon eta GAOean iragarkiak argitaratuz. Legeak adierazten duen hogeit eguneko epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

III.- 2012ko urriaren 18ko datarekin, Testu Bateratu bisatua aurkeztu da, hasierako onespena erabakiaren aldaketak jasoz.

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egin dio:

Lehenik. Beasaingo CAF, 6. Areako P.1.1 (P1 lursaila) azpilursailaren Areako Xehetasun Azterlanari behin betiko onespena ematea.

Bigarren. Erabaki honen berri sustatzaileari ematea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

- ZAZPITURRIETA, 4. areako 4.1 Unitate Egikaritzeko Xehetasun Azterlanari behin betiko onespena ematea.

Alkate jaunak Hirigintza Batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gai: Beasaingo 4. Areako 4.1 unitate egikaritzeko Xehetasun Azterlanaren aldaketari behin betiko onespena ematea.

I.- 2011ko irailaren 22ko datarekin, Alkateak ebatzi zuen 4. areako 1 unitate egikaritzeko Xehetasun Azterlanari hasierako onespena ematea, dokumentuan funtsezkoak ez diren zuzenketak egitearen baldintzapean.

II.- Espedientea jendaurrean jarri zen, 2011ko irailaren 28ko GAO-n, 2011ko irailaren 27an Berrian eta 2011ko irailaren 26an Diario Vascon, iragarkiak argitaratuz.

III.- Hasierako onespen erabakia espedientean interesatuak direnei jakinarazi zitzaion.

IV.- Legeak adierazten duen hogeitun laneguneko epean, Ainara Zaldua Davila eta Juan Vicente Panadero jaun-andreak alegazioak aurkeztu dituzte, Udala eta ORMAK-en arteko hitzarmenaren hasierako eta behin betiko onespenei aurkeztutakoak errepikatuz. Hauek, 2011ko ekainaren 22ko eta 29ko eta urriaren 27ko txosten tekniko eta juridikoen arabera ebatzi dira.

V.- Ainara Zaldua Dávilak eta Juan Vicente Panaderok, birjarpen helegitea aurkeztu zuten baita ere Udala eta ORMAK-en arteko hitzarmenaren aurka. Errekurtso honen ebazpena, 2012ko uztailaren 11ko Plenoak hartutako erabakiaren bidez eman zen.

VI.- Bitarte horretan, ELKARTU elkartearen eta Jose Miguel Iturrioz, 15A eta 15B jabetza erkidegoaren eskaera garajeen irteera eta sarbideari buruzkoa udaletxean jaso zen 2012ko urtarrilaren 24ko datarekin. 2012ko martxoaren 1eko idatziaren bitartez, Udalak ORMAKi proposatu zion aipatutako eskaera kontutuan izatea, beti ere teknikoki arazorik izan ezean.

VII.- 2012ko irailaren 14ko datarekin, ORMAK aurkeztu zuen Xehetasun Azterlanaren Testu Bateratua, bisitatu gabe, onartu ahal izateko.

VIII.- 2012ko irailaren 19an eta 20an, txosten tekniko eta juridikoak ematen dira hurrenez hurren eta nabaritzen dena da, zuzendu beharreko xehetasunak falta direla

Memorian eta Planoetan akatsak daudela. Horren ondorioz, ORMAKi errekeritzen zaio berriro ere Xehetasun Azterlanaren Testu Bateratu bisatua eta zuzendua aurkezteko. Honek 2012ko azaroaren 19ko erregistroko sarrera data du.

Aztertu ondoren, 2012ko urriaren 29an eta azaroaren 13an emandako txosten tekniko eta juridikoak diote, Testua zuzena dela eta behin betiko onespena ematea dagokiola.

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egin dio:

Lehenik. *Aurkeztutako alegazioak ebaztea, deuseztatuz, aipatutako txostenen arabera eta lehen aipatutako 2012ko uztailaren 11ko erabakia berretsiz.*

Bigarren. *Elkartu elkarteak eta Jose Miguel Iturriotz kaleko 15A eta 15B jabe-erkidegoak egindako eskaerarekiko esan, zati batean onartzen dela, hau da, behe solairuko ibilgailuen aparkalekuarentzat irteera berri bat sortzen da (ez sotoko solairuko ibilgailuen aparkalekuarentzat, ezintasun teknikoa dela medio); irteera hau 4. lursaileko etxebizitzaren eta Manufacturas Olanaren eraikinaren arteko espazio publikotik egiten da.*

Horrek esan nahi du ondorioztatutako P1, P2, P3 eta P4, lursailen artean elkarrekiko zortasuna eratu beharko litzatekeela.

Hirugarren. *4. areako 1 unitate egikaritzeko Xehetasun Azterlanari behin betiko onespena ematea, adieraziz hasierako onespenei Testuarekiko, aurreko puntuan aipatutako aldaketaz gain, Juan XXIII, goiko kalea, komunikatzeko igogailu publikoaren eta sotoko ibilgailuen aparkalekuko larrialdiko irteeraren kokapena doitzaren dela; hauek Juan XXIII kale aldera atzeratu dira, 1,78 m gutxi gora behera.*

Hirugarren. *Erabaki honen berri espedientean interesatuta dauden guztiei ematea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Julio Herreros jaunak (PP): “votaré en contra por el modo en que se propone resolver la alegación presentada por Ainara Zaldúa Dávila y Juan Vicente Panadero.

Josi Insausti jaunak (H1) adierazi du bere jarrera ere berdina dela.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guk ere aurka bozkatuko dugu, proposatzen denarekin bi pertsoneri bizkarra ematen zaielako. Aldiz, garajeen irteerari eman zaion konponbidearekin ados gaude eta eskertzen dugu bizilagunek egindako eskaera zati batean onartzea. Baina proposamen honekin, bi pertsona horiei ezer ez dagokiela onartzen dugu eta grabatuak izan dira. Horregatik guk, aurka bozkatuko dugu.”

Horren ondorioz, bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 8 (BILDU, PSE-EE/PSOE)

Aurkako botoak: 8 (EAJ, H1, PP)

Abstentzioak: 0

Botoen berdinketa izan denez, bozketa berriro errepikatu da eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: 8 (BILDU, PSE-EE/PSOE)

Aurkako botoak: 8 (EAJ, H1, PP)

Abstentzioak: 0

Berriro ere berdinketa dagoenez, Alkateak bere kalitate botoarekin proposamenaren aldeko jarrera hartu du eta horren ondorioz, proposamena gehiengo soilarekin onartu da.

3.- ZORRAK LUZATZEA ETA ZATITZEA. Aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapenerako eta zatikapenerako irizpideak.

Alkate jaunak Hazienda Batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- Aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapenerako eta zatikapenerako irizpideak.

*2009ko azaroaren 27an onartu eta behin eta berriro luzatu den erabakiaren arrazoiak irauteaz gain, egoera ekonomiko-finantzario txarra areagotu egin da. Horregatik, hain zuzen ere, Hazienda Batzordeak Udalbatzari **proposatzen dio 2.013ko abenduaren 31ra arte lehengoko akordioaren indarraldia luzatzea.***

Ekonomia eta finantza alorrean gaur egun bizi den krisialdi familietan eta enpresen eguneroko trafikoan likidezia falta eragiten ari da. Likidezia hori behar-beharrezkoa dugu gure sistema ekonomikoan dauden obligazioei, eta besteak beste, zerga arlokoiei, aurre egin ahal izateko. Hau guztiarengatik eta udal ogasunari egin beharreko ordainketak erraztearen alde kontutan izanik egungo finantza krisialdiak sorturiko ezohiko inguruabarrak, egokia ikusi da aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapen eta zatikapenerako irizpideak arautzea..

Azaldutakoaren arabera eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 64.5 artikuluan xedatutakoaren babespean, Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten dio:

1.- Borondatezko epean dauden aipatutako zorren ordainketa geroratu eta zatikatu ahal izango da betebeharpekoaren egoera ekonomiko eta finantzarioak, organo eskudunaren iritziz, ordainketa egitea eragozten badio aldi baterako.

2.- *Ordainketak Geroratzeko eta Zatikatzeko irizpide orokorrak ondorengo hauek izango dira:*

a. 800 eurotik beherako zorrak / Para deudas no superiores a 800 euros:

- *Gerorapena:*

<i>a.1. 100 eta 200 euro artean</i>	<i>hilabete 1</i>
<i>a.2. 201 eta 400 euro artean</i>	<i>2 hilabete</i>
<i>a.3. 401 eta 600 euro artean</i>	<i>3 hilabete</i>
<i>a.4. 601 eta 800 euro artean</i>	<i>4 hilabete</i>

- *Zatikapena*

<i>a.5. 100 eta 200 euro artean</i>	<i>hilabete 1</i>
<i>a.6. 201 eta 400 euro artean</i>	<i>2 hilabete</i>
<i>a.7. 401 eta 600 euro artean</i>	<i>3 hilabete</i>
<i>a.8. 601 eta 800 euro artean</i>	<i>4 hilabete</i>

b. 800 eurotik gorako zorrak:

- *Gerorapena:*

<i>b.1. 800 eta 12.000 euro artean</i>	<i>6 hilab.</i>
<i>b.2. 12.001 eta 24.000 euro artean</i>	<i>6 hilab.</i>
<i>b.3. 24.001 eta 36.000 euro artean</i>	<i>6 hilab.</i>
<i>b.4. 36.001 eurotik aurrera</i>	<i>6 hilab.</i>

- *Zatikapena:*

<i>b.5. 800 eta 12.000 euro artean</i>	<i>6 hilabeteko epea</i>
<i>b.6. 12.001 eta 24.000 euro artean</i>	<i>12 hilabeteko epea</i>
<i>b.7. 24.001 eta 36.000 euro artean</i>	<i>18 hilabeteko epea</i>
<i>b.8. 36.001 eurotik aurrera</i>	<i>24 hilabeteko epea</i>

- *Organo eskudunak, kasu bakoitza aztertu eta gero, gerorapen edo zatikapena onartzea erabakiko du. Organo eskudunak, zehaztuta ez dauden ordainketa epeak onartu ahal izango ditu, beti ere zehaztuta dagoen gehiengo epea gainditzen ez den bitartean.*

3.- *Borondatezko epea amaitu ondorengo 12 hilabete edo gutxiagoko epeko gerorapen eta zatikapenak ez dute interesik sortuko.*

4.- *Berandutza eta zatikapena onartuz geroko lehen urtea igaro ondoren, zordundutako kopuruengatik diruaren interes legala sortuko da.*

5.- Oro har, araudi honen arabera emandako gerorapen eta zatikapenetan ez da bermerik eskatuko.

6.- Epealdi bakar baten ordainketa betebeharra haustea nahikoa izango da zatikapen edo gerorapen emakida bertan behera gelditzeko eta epe exekutiboa hasteko. Horrela, geroratutako zorra, interesak eta dagokion gainkargua eskatuko dira.

7.- Araudi honetan xedatutako baldintzen arabera gerorapenak eta zatikapenak emateko Alkateari ematen zaio eskumena, Hazienda Batzordearen aurretzako aldeko eta nahitaezko proposamenaren arabera.

8.- Araudi honen indarraldia onartua izaten den unean hasiko da eta 2013ko abenduaren 31n amaituko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

4.- KREDITU ALDAKETA, kreditu gehigarrien modalitatean.

Alkate jaunak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- Kreditu Aldaketa. 6. Kreditu Gehigarrien Espedientea.

Udalbatzaren erabakiz, Beasain Lantzen, S.A. enpresak Nafarroako Rural Kutxa entitatearekin egindako 1.900.000,00 euroko kreditu eragiketa abalatu zen, eta honen epemuga 2013ko martxoaren 3a da. Gaur egun, Beasain Lantzen, S.A.k ez du baliabiderik maileguaren itzulketari aurre egiteko epemuga iristen denean.

Apirilaren 27ko, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak toki entitateak behartzen ditu hainbat printzipio betetzera (aurrekontu egonkortasuna, finantza iraunkortasuna, gastu ez-finantzarioaren muga, etab.) eta hauek betetzea ezinezkoa litzateke 2013ko aurrekontuan %100 udalaren kapitala duen elkarteari, maileguaren itzulketarako beharrezkoa den kopurua transferitzeko kreditua aurreikusten bada.

Bestalde, Udalak, egindako azken aurrekontuko likidaziotik ondorioztutako Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Gerakina du, 4.294.433,34 eurokoa, eta 2/2012ko Legearen 32 artikuluan xedatutakoaren arabera, aurrekontu-likidazioan superabita baldin badago, zorpetze garbia murriztera bideratu beharko da.

Beraz, bidezkoa da une honetan kreditu aldaketarako espedienteari hasiera ematea, kreditu erabilgarriak proposamenean zehazten den kopuruan sortzeko. Hau guztia

bideratuko da Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 28. artikuluan jasotakoaren babespean.

Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastua egin beharra izanik eta hau finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikoa ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 6. Kreditu gehikuntzen bidez 1.900.000,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontu saila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak.	Behin betikoak
1.1000.733.010.00.01	Beasain Lantzen: mailegu amort.	0,00	1.900.000,00	1.900.000,00
GUZTIRA		0,00	1.900.000,00	1.900.000,00

DIRUZAINZAKO GERAKIN ERABILGARRIA

Beasaingo Udaleko Kontuhartzaileak, indarrean dagoen legerian jasotakoaren babespean, diruzaintzako gerakin likidoa kalkulatu du, finantzaketarako baliabide gisa erabilgarri izan dadin. Hona hemen xehekapena:

Diruzaintzako gerakin gordina 8.819.035,81

- Eskubide kobragaitzak.....(-)	2.882.541,31
Diruzaintzako gerakin likidoa	<u>5.936.494,50</u>
- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina(-)	233.718,40
Gastu Orokorretarako hasierako diruzaintzako gerakina	<u>5.702.776,10</u>
- Onetsitako kreditu aldaketarako espedienteak finantzatzeko erabili den diruzaintzako gerakina	(-) 1.642.061,16
Diruzaintzako gerakin likido erabilgarria	<u>4.294.433,34"</u>

Jarraian Alkateak ondorengoa esan du: "Gure ustez, Beasain Lantzeneko etorkizuna aztertu behar da. Historia pixka bat eginez esan, 2002. urtean sortu zela. Azkeneko hiru urte hauetako etekinetan, galerak dituela azaltzen da. Bi mailegu ditu, bata 600.000,00 €koa eta bestea 1.900.000,00 €koa 2013ko martxoan epemuga duena. Olarango babes ofizialeko etxebizitzak egiteko ere BANKOArekin beste mailegu hipotekarioa du, baina honek ondo bidean ez du arazorik izango. Nire ustez Beasain Lantzeneko egoera ez da batere ona, Udalaren abala behar duelako eta horregatik pentsatu beharrean gaude zer egin. Gu prest gaude hori aztertu ahal izateko prozesu bat irekitzeko. Orain ez gara sartuko esaten Beasain Lantzen desagertu egin behar den ala ez, baizik eta proposatzen duguna da mahai bat irekitzea denon artean honi buruz hitz egiteko, garbi ikusten delako kudeatzailea dela galtzen ez duen bakarra. Euskal Herriko Kontu Epaitegiak ere hainbat irregulartasun azpimarratu zituen.

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): "Este no es un asunto sobrevenido. No hay solución de continuidad y es insoluble a corto plazo. Las consecuencias para el Ayuntamiento pueden ser graves. Tenía un fin loable, pero no ha dado resultado. Por responsabilidad vamos a apoyar a favor de la propuesta, pero con la condición de que tras los correspondientes informes, se disuelva definitivamente."

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): "Votaremos a favor porque quien avala tiene que cumplir el objetivo de estabilidad presupuestaria. Estamos de acuerdo en que se analice y ver si hay fórmulas mejores, pero hay que tener en cuenta que la disolución implicaría tener que devolver 2.120.000 €, en concepto de IVA que se ha dejado de ingresar. Ese era uno de los beneficios que se

lograba al encomendarle la construcción y gestión de las instalaciones del polideportivo, pero claro, con la que está cayendo Beasain Lantzen también lo nota. Es verdad que tiene deuda, pero también tiene patrimonio. En Itola tiene terreno que podría repercutir positivamente en el Ayuntamiento. También dispone de dos pabellones, siendo uno de ellos utilizado por el Ayuntamiento para guarda de carrozas. Es verdad lo que se ha dicho de los préstamos, pero si comparamos la gestión de Beasain Lantzen con otro tipo de sociedades, tenemos que decir que en nuestro caso se hizo un concurso público para contratar la gestión, que se adjudicó a ESARBE, que cobra un 6,5% sobre el importe de las obras, cosa que, por ejemplo, VISESA cobra un 10%. Hay que darle una vuelta e intentar mejorar las actuales condiciones. Pero también hay que recordar que además del Polideportivo se han llevado adelante otros proyectos: Olaran, Centro de Salud....

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Si pero no correspondía.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “No se ha hecho nada que no estuviera dentro de su objeto social, pero con lo que está pasando, también Beasain Lantzen tiene dificultades para vender los pabellones. Sin embargo insisto en que deja un patrimonio al Ayuntamiento, y también tenemos que darnos cuenta de que es difícil para el Ayuntamiento gestionar un tema como el de las viviendas de VPO. Se puede mejorar, de acuerdo, pero también hay que contar la historia de principio a fin.”

Gaia behar adina eztabaidatuta, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposatutako kreditu aldaketa egitea.

5.- ALKATETZAREN EBAZPENAK. 2012ko urriaren 8tik 2012ko azaroaren 17ra bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, Alkateak 2012ko urriaren 8tik 2012ko azaroaren 17ra bitarte emandako Ebazpenak.

PREMIAZKO PUNTUAK

Aitor Aldasoro jaunak Alkateari hitza eskatu dio eta honek eman ondoren, mozio bat premiazko puntu modura sartzeko eskaera egiten du, bihar, azaroak, 23 hamaika urte betetzen direlako Zaldizurretako biribilgunean bi ertzain erail zituztelako.

Alfonso Segade jaunak antzeko eskaera egin du, beste bi mozio hauei buruz: etxebizitzetatik kaleratzeak eragiten ari diren arazo sozialei buruz eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna.

Premiazko puntu modura mozio horiek gai-zerrendan sartzeko bozketa egin da eta aho batez onartu da.

Alkateak, Aitor Aldasoro jaunari hitza eman dio eta honek mozio hau irakurri du:

“Joan den Azaroaren 10ean, Memoriaren eguna ospatu zen Euskadin.

Egun horretan, Euskadik, bake eta askatasunean bizitzeko duen eskubidea aldarrikatu genuen. Euskal gizarteak bere erakunde demokratikoen bitartez, biktimen memoria, etorkizuna bakean eraikitzekeo aldarri gisa erabili nahi duela erakutsi zuen, askatasuna, aniztasuna, tolerantzia eta justizia oinarritzat hartuaz.

Memoriak, izenak eta datak jarri ditu, biolentziak aitzaki eta itxuragabeko arrazoitzeak jarri zituen lekuan. Memoriak, sufrikarioaren akta jasoaz, herriari gertatutakoa ahaztea ekidin behar dio. Biktimen memoria gordetzea da, gure artean ez daudenei eman diezaiokegun bakarra, hortik atzerakoak biolentzia edo zentzugabeko errepresioak kendu baitzien.

Azaroaren 23an, arratsaldeko 19:15etan beteko dira hamaika urte, gure herrian, trafikoa zuzentzen ari zirela, Ana Arostegi eta Javier Mijangos ertzainen biziak trunkatu zirenekoa. Harrezkero aurrerapusu nabarmenak eman dira, horrelakoak behin betikoz berriro gerta ez daitezen.

Hamaika urte pasatakoak, hamaika malko isuri direnak, hamaika pausu eman direnak eta eman beharko ditugunak eta hamaika ate gure gizarteak esperantzari ireki beharko dizkionak.

Gertaera triste hura ahaztu gabe, aurrerapusu horien sendotasunaren adierazle izan nahi luke aurkezten ari garen mozio honek.

Esandakoa kontuan harturik, Beasaingo Udalak honoko erabaki hau hartzen du:

1/ 2012ko azaroaren 23an, arratsaldeko 19:15etan, Zaldizurretako rotondan, eraildako ertzainen omenez dagoen oroigarriaren aurrean minutu bateko isilunea egitea.

2/ Aro berri honi esperantzaren ateak irekiaz, leku berean Udalak lore sorta ipintzea.

3/ Udaleko web orri eta Komunikabideen bitartez, herritarrei honen berri eman eta bertan parte hartzeko gonbidapena luzatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Apoyo la moción para preservar la memoria de los asesinados por la banda terrorista ETA.”

Koldo Agirre jaunak (BILDU): “alderdi guztiak adostu duzue mozio hau, eta ez dakigu zergatik gobernu taldearekin ere ez duzue adostu. Testuarekin

alde ez egonik ere, mozioaren alde bozkatuko dugu, nahiz eta gure ekarpenak falta. Biktima guztien aitortzarekin bat egiten dugu, BILDUK horren aldeko apustua egiten du. Beste alderdi batzuk ordea, ez dira pauso horiek ematen ari gurekin ez dutelako kontaktzen.

Gaurko egunean, honakoa adierazi nahi du EH Bilduk:

1. **Indarkeria guztien biktimak modu berean tratatuak izan behar direla deritzogu**, inolako mailaketarik gabe. Oinarrizko giza eskubideen urraketa da biktima bihurtu dituen.
2. Euskal Herrian bake justua eta iraunkorra eraikitzeko **ezinbestekoa da biktima guztien aitortzea egitea**.
3. Era berean, ezinbestekoa deritzogu sufrimendu guztiak onartu eta zauriak sendatzeko konpromiso eta borondatea erakustea.
4. Eragindako **mina erreparatzearen beharra ezinbestekoa deritzogu**. Mota guztietako neurriak ezarri behar dira horretarako, baita politikoak, zeintzuk indarkeriaren erabilerak eragindako egoeren errepikatzea eta eskubideren urraketa egoerak gertatzea eragotziko duten.
5. **Biktima orori egiaren ezagutza zor zaio**. Gizarte justu eta baketsua lortzea izango da biktima guztien memoriarako benetako testigantza eta bermea.
6. **Adiskidetzea lortzea eta elkarrenganako errespetua dugu helburu**. Pertsona guztiek beren eskubideak bermatuak eta errespetatuak izango dituzten gizarte dugu helburu.
7. Eta bide horretan, EH Bilduk deritzo **gatazka politikoaren behin-betiko gainditzea** izango dela giza eskubideen urraketa egoerarik berriro ez gertatzeko bermerik onena eta horretarako, **ezinbesteko tresna dugu elkarriketa.**”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Lehenik, BILDURI eskerrak eman mozio hau onartzeagatik. Zuentzat, agian, normala izango da, baina guretzat Fernando Barrenak Ernest LLuc-en erailketari buruz esandakoa zoriontzekoa da. Hasieratik gure asmoa izan zen, BILDURI ere mozia pasatzea, baina alderdi desberdinei azaldu, ekarpenak egin, euskaratu eta adostasun batera iristerako, beranduegi egin zitzaigun Plenora ere garaian sartzeko. Dena dela prest gaude, horrelakoetan BILDURI esateko eta Alkatea izateko mozia aurkezten duena. Inertziagatik izan da, baina onartzen dut nire errua zentzu horretan.

El partido socialista hizo una aportación importante y extensa en lo que al texto de la moción se refiere. Nuestra intención no ha sido la dejar a una lado a BILDU. Pensabamos que desde el martes que se conocía su contenido se podían haber hecho aportaciones.”

Publikoan dagoen pertsona batek Alkate jaunari hitza eskatu dio eta eman ondoren adierazi du, EAJk egindako adierazpenak ez direla poztekoak, hipokresia handia dagoelako gai honen inguruan. Jarraian esan du, alde batetik sinetsi nahi duela mozioa epez kanpo deskuidoz aurkeztu dela, nahiz eta oso ondo jakin aurkezteko epea zein den eta bestetik, urteurrena aprobetxatu dela mozioa aurkezteko eta horrek intentzio politikoa besterik ez duela. Mozioa aurkeztu dutenei leporatzen die giza eskubideen aldarrikapen partziala egitea.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Ez nago ados zuk aipatzen duzun hipokresia horrekin. Mozio honekin ez da Memoria orokorra aipatu nahi baizik eta bi pertsonaren oroimena aintzakotzat hartu. Uste dut saiakera egin behar dugula gai honetan denok batera joateko. Testuan egiten diren adierazpenak ere hitzartu egin behar dira.

Epeari buruz esan, aurreko ostiralean ere aurkeztu zitekeela inorekin kontatu gabe, baina lanketa bat dago eta aurrerapausoak eman behar dira. BILDUK ere asteartetik denbora izan du mozioarengan ekarpenak egiteko.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta aho batez onartu da.

Jarraian Alkateak, Ana Crespo andreari (PSE-EE/PSOE) hitza eman dio eta honek azaroaren 25a dela eta “emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna”ri buruzko ondorengo mozioa irakurri du:

*“Con motivo del 25 de Noviembre, fecha declarada por la Asamblea General de Naciones Unidas como "Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres", el **Ayuntamiento de Beasain** expresa su firme repulsa a la violencia machista. Manifiéstanos nuestro rechazo hacia cualquier expresión de violencia contra las mujeres en todas sus dimensiones (física, psicológica, sexual, simbólica...), así como a cualquier forma de sexismo, incluidas las más sutiles y normalizadas, como la asignación de roles estereotipados por sexos, la invisibilización de niñas y mujeres en los distintos ámbitos de la vida y su relegación a papeles secundarios, la negación de sus derechos sexuales y reproductivos, o la discriminación hacia las personas por sus opciones sexuales o su identidad de género. Lejos del mito de que en las generaciones más jóvenes la desigualdad entre mujeres y hombres y la violencia contra las mujeres están superadas, la realidad nos muestra que la incidencia de la violencia machista en la población joven, incluso menor de edad, es verdaderamente preocupante.*

Es imprescindible comprender que no se puede luchar contra la violencia hacia las mujeres sin abogar por un cambio profundo de los modelos de masculinidad y feminidad así como de la manera en que se construyen las relaciones afectivas y sexuales entre las mujeres y los hombres. Por ello, como gobierno local debemos tener un compromiso activo de trabajar la prevención de la violencia machista con las y los jóvenes del municipio, dedicando el esfuerzo y los recursos necesarios para acompañar a la juventud en la construcción de relaciones basadas en el respeto, la libertad, la autonomía y la igualdad.

Este proceso preventivo incluye generar nuevos modelos de referencia que no atribuyan a los chicos y hombres una posición de privilegio sobre las chicas y las mujeres, dado que el origen de la violencia machista se encuentra en esa relación de poder que perpetúa la subordinación y la discriminación de las mujeres. El programa Beldur Barik, en el que participan los ayuntamientos vascos, tiene como objetivo precisamente identificar y visibilizar esas actitudes positivas y cotidianas de chicas y chicos que se desmarcan del sexismo, que rompen con los roles tradicionales y se implican en la construcción de una sociedad igualitaria.

Desde las instituciones y desde la más cercana, el ayuntamiento, debemos asumir nuestra responsabilidad social y política ante la violencia machista, empezando por el ejercicio personal y colectivo de revisar nuestros prejuicios, roles y actitudes cotidianas. Sólo de la asunción de éstas responsabilidades como propias se derivará el compromiso de cambio.

MOCION

El Ayuntamiento de Beasain:

- *Comparte los contenidos del programa Beldur Barik, como herramienta para trabajar en la sensibilización y prevención de la violencia machista con la juventud.*
- *Invita a la ciudadanía a adoptar compromisos personales y colectivos a favor de la igualdad entre mujeres y hombres; incluido el rechazo a cualquier manifestación de violencia o discriminación sexista.*
- *Anima a toda la ciudadanía, y en especial, a las chicas y chicos jóvenes, a participar activamente en los diferentes actos convocados con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek mozioarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

Hurrengo mozioa, Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE) irakurri du eta honela dio:

“MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL DEL PSE-EE DEL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN, EN RELACIÓN CON LOS DESAHUCIOS Y LOS PROBLEMAS SOCIALES QUE ESTAN PROVOCANDO

Con el estallido de la crisis y el aumento del paro, centenares de miles de personas han llegado a una situación límite que no les permite cubrir sus necesidades básicas, y entre ellas el pago de la vivienda habitual de una familia.

Según los datos que se manejan, decenas de miles de familias se han quedado ya sin su vivienda, lo que constituye un verdadero drama social.

No estamos hablando sólo de la pérdida de una vivienda para las familias, con todo lo que eso supone, sino también de una condena financiera de por vida. Se trata de una situación profundamente injusta sobre la que es imprescindible que todos pongamos de nuestra parte para darle solución.

Desde luego, es necesario reaccionar para evitar que todas las consecuencias de la crisis recaigan sobre la parte más vulnerable del contrato hipotecario, y en cambio, las entidades financieras, responsables de esta crisis en buena medida, mantienen su posición de fuerza en la ejecución hipotecaria, cuyo resultado es la pérdida de la vivienda para miles de familias.

Los Ayuntamientos somos las instituciones más próximas al ciudadano y por tanto vivimos el día a día de los problemas y las consecuencias personales y sociales que los desahucios están provocando.

Los Alcaldes y concejales asistimos impotentes a un drama colectivo frente al que poco podemos hacer si no es dar apoyo a través de los servicios sociales y orientación para evitar que los problemas empeoren. Estamos viviendo un tsunami social que nos desborda y produce un enorme daño a la cohesión social.

A pesar de las dificultades y limitaciones para actuar desde el ámbito municipal, creemos que es imprescindible un pronunciamiento de la Corporación Municipal, porque nos rebelamos ante una situación que consideramos injusta e insostenible y queremos aunar voluntades exigiendo acciones y asumiendo también la responsabilidad de actuar en la parte que nos toca.

MOCION

- 1. Pedir una suma de esfuerzos de todas las instituciones, partidos políticos, y agentes sociales para frenar los desahucios, promoviendo un cambio de la legislación hipotecaria y una moratoria de, al menos dos años, de los desahucios que afecten a la vivienda habitual.*
- 2. Instar al Gobierno Central a que modifique la legislación hipotecaria con la mayor rapidez posible, homologando de este modo nuestra legislación con la europea, incluyendo la figura de la dación en pago, para evitar la condena financiera de por vida de aquellas personas que han perdido su vivienda.*
- 3. Exigir del Gobierno Central la paralización de los desahucios que afecten a aquellas personas amparadas por el código de buenas prácticas de la banca, durante al menos dos años.*
- 4. Instar al Gobierno Vasco a que continúe mejorando el servicio de Mediación Hipotecaria, al mismo tiempo que refuerza su apuesta por la política de alquiler social como medida paliativa de cara a las familias que se vean expulsadas de su vivienda habitual.*
- 5. Pedir a las Diputaciones que colaboren con el Gobierno en esa dirección, reforzando la coordinación y ampliación del gasto social dirigido a paliar los problemas de vivienda.*
- 6. Exigir a las entidades financieras, a todas ellas, la paralización de los desahucios, durante al menos dos años.*
- 7. Apoyar la creación de grupos de trabajo en los Ayuntamientos, con presencia de los grupos políticos municipales, y agentes sociales del municipio para buscar alternativas a las familias afectadas por desahucios y estudiar iniciativas que puedan ,dentro del marco competencial municipal, aliviar el sufrimiento de los afectados por los desahucios.*
- 8. Orientar a los ciudadanos y ciudadanas del municipio que tengan problemas para hacer frente al pago de los compromisos adquiridos para la compra de sus*

viviendas habituales y no hubieran alcanzado un acuerdo previo con la entidad bancaria correspondiente, hacia el servicio de mediación hipotecaria puesto en marcha por el Departamento de Justicia y administración Pública del Gobierno Vasco con carácter público y gratuito.

9. *Tomar iniciativas frente a las entidades financieras que mantengan los desahucios, entre ellas la retirada de sus depósitos.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Julio Herreros jaunak (PP): “Estoy en contra de los desahucios, pero el Gobierno Central ya está tomando medidas en relación a este tema. No estoy de acuerdo con algunos puntos de la moción. Por lo tanto, nuestra postura será la de la abstención.”

Iñaki Saldaña jaunak (BILDU): “Estamos de acuerdo con la moción. Pediríamos que se apoyara que los agentes municipales desobedezcan la orden de desalojar a los desahuciados.”

Gai honen inguruan esateko besterik ez dagoenez, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (BILDU, EAJ, PSE-EE/PSOE, H1)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (PP)

Aldeko botoak aurkakoak baino handiagoak direnez, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

UDALA, IKASTOLA ETA GURUTZE GORRIAREN ARTEKO HITZARMENA

Josi Insausti jaunak (H1): Udala, Beasaingo Ikastola eta Gurutze Gorriaren artean sinatutako hitzarmenaren berri informazioa eskatzen dut, parte-hartze batzordean esan zelako Ikastola zabaldu egin nahi zela eta Gurutze Gorria lekualdatu, baina ez zegoela horren inguruan inolako konpromisorik. Gertatzen dena da konpromiso horiek idatzita eta sinatuta daudela.

Alkate jaunak (BILDU): “Gure asmoa, lehendik hartuta zeuden konpromisoak betetzea besterik ez da. Ez diogu inori pribilegioak edota eskuratutako eskubideak kendu nahi.”

Josi Insausti jaunak dokumentu bat sinatuta dagoela eta bertan konpromiso batzuk hartzen direla errepikatu du.

Zezenia Herrador andreak (BILDU): “Zuk esan duzun bezala, konpromisozko dokumentu bat besterik ez da. Horren edukia batzordean landu behar da. Datorren astean egingo dugu batzordea eta alde aurretik pasatuko zaizue dokumentua. Oraindik ez dago ezer adostuta.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Jakin behar dena da Udalari ekonomikoki zenbateraino konprometitzen dion.

Alkate jaunak adierazi du, dokumentu horretan azaltzen diren alde guztiak prest daudela hitz egiteko.

ARANA PARKEAREN BIRMOLDAKETA

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “En el Presupuesto existe consignación presupuestaria para remodelación del Parque Arana. Presentamos esa propuesta para incluirla en el Presupuesto, se aceptó su inclusión, se aprobó, se hizo una propuesta en urbanismo, pero no se ha hecho nada. Sin embargo, este no hacer está perjudicando a terceras personas, ya que un ciudadano se queja porque su lonja está inundada. Parece ser que se le dijo que en breve se iba a solucionar y sigue igual.”

Alkatea jaunak (BILDU): “La intención es reasfaltar. Se hará con la empresa que va a ejecutar las obras de la calle Los Carrera. Por lo que nos dijeron se va a acometer el lunes.

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “Todos conoceis el número de operarios con que cuenta la brigada de obras.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Eso no lo justifica.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak eta bostetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.